

RECOMENDACIONES PARA UN USO NO SEXISTA DEL LENGUAJE/HIZKUNTZA *SEXISTA EZ ERABILTZEKO GOMENDIOAK (EMAKUNDE)*

(euskara)

Euskarak ez dauka genero gramatikalik, baina euskararen erabilera sexista da. El euskara no tiene marca de género gramatical, pero la utilización del euskara es sexista.

- a) Androzentrismo eta sexismoaren aztarnak euskara hizkuntzan/ Huellas del androcentrismo y del sexismo en el euskara.
Begira ezazue edozein hiztegi eta konturatuko zarete emakumeekiko diskriminazioa suposatzen duten hitzez beteta dago.

Mujer: Ema-kume

Eme-ere esan nahi du “*suave, blando, manso*” eta “*andra*” eta “*eme*”-tik konotazio sexual nabarmeneko hitzak eratortzen dira eta beti sentse txarrean: “*andratan, emagaldu, emakoitasun, emalegeak, andramin, ematzar...*”

Hombre: Giz-on, gainerantzean giza-tik guztiz balio semantiko ezberdin eta esanguratsua duen hitz-sorta dator: *gizabide, gizalan, gizaki, gizagende, gizaldi, gizalege, gizarte, gizartasun, gizatiar...*

Ez erabili
Gizaki, gizarte

Bai
Jendeki, Jendarte

Gizaki eta emazteki formak sexu bakoitzari dagozkionean erabili bakarrik!

- b) Kontuz erdaren eraginarekin! Ez erabili masculino orokortzailea

Ez
Aitak, erregeak, aitonak, jaunak.....

Bai

Aita-amak, gurasoak, errege-erreginak, aiton-amonak, osaba-izebak, senar-emazteak, andra-gizonak, Jaun-andreak

Ez

Zuzendari jauna

Bai

Zuzendaria edo Zuzendari jaun/andrea

c) Hitz elkartuetan, bigarren osagaia “gizon” denean erabili -ari edo -langile:

Ez

Legegizon, itsasgizon

Bai

Legelari, itsaslangile/itsaslari

d) Ez dugu -sa atzikia erabiliko. Zubereraz bizirik dagoen arren (laborarisa, jainkosa, alarguntsa, abadesa, alkatesa), hegoaldean -ren emaztea esateko erabili baita. Beraz, generoa zehaztu nahi badugu, neska/mutil dantzaria edo gizon/emakume idazlea erabiliko dugu.

Ez

Alkatesa

Bai

Alkatea, Alkate andrea

e) Pareko tratamendua eman emakume eta gizonei!

Ez

Gizonak alde honetan eta neskak beste aldean

Bai

Gizonak alde honetan eta emakumeak beste aldean

Ez

Goñi jauna eta bere emaztea etorriko dira

Goñi jauna eta Mirentxu etorriko dira

Bai

Goñi jauna eta Yoldi andrea etorriko dira

f) Hitanoa ez dugu talde misto bati zuzendu behar. Bestela, hitano maskulino eta femeninoa erabili behar ditugu.